

begira



26.^{zka}
2012ko abendua

ULMA

Elkarrizketa Irene
Alberdiri. ULMA Taldeko
Kontseilu Orokorreko
lehendakaria

ULMA taldeak Begira
aldizkariaren OnLine
bertsioa jarri du abian:
www.begira.ulma.com



10

URTEZ **BEGIRA**



ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIK.
ULMA Orga Jasotzaileak negozioak **LTZ Online Kudeatzaile Informatikoa** garatu eta ezarri du.



ERREPORTAJEA.
ULMA Forja S.Coop.
50 urte elkarrekin, 1962-2012



2012ko abendua

3 hitz egin dezagun honetaz...
10 urtez Begira; guztion proiektua, guztiontzako proiektua.

4 albisteak eta gaur egungo gaiak
ULMA Pipingek lankidetzan dihardu ROPARUN Elkartearekin minbiziaren aurkako borrokan.

ULMA Construccioneek laneko segurtasun eta osasunari buruzko AENOR errekonozimendua jaso du.

ULMA Handling Systemsek atek ireki ditu nazioarteko merkatu berrietan.

17 aurrez aurre
Mikel Izurieta. ULMA Architectural Solutionseko gerentea.
Irene Alberdi. ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakaria.

20 erreportajea
ULMA taldeak Begira aldizkariaren OnLine bertsioa jarri du abian.
www.begira.ulma.com

22 erreportajea
Jesús Mª del Río, ULMA Packagingeko atzerriratua Alemanian.

24 erreportajea
ULMA Forja S. Coop. 50 urte elkarrekin, 1962-2012

26 agenda eta iradokizunak



LAGUNTZAILE TALDEA: Nora Altube, Joseba Alberdi, Ana Da Costa, Nerea Zallo, Irene Moreno, Edurne Unzueta, Alaitz Osa eta Javier Rivera.

Edizioa: Grupo ULMA S. Coop., Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k. 20560 OÑATI.

Tel.: 943 25 03 00 **Fax:** 943 78 09 17. **Helbide elektronikoa:** begira@ulma.com.

Diseinua eta maketazioa: Marka, Komunikazio, EES eta IKT arloa. • **Inprimategia:** Gertu S. L.



10 urtez Begira; guztion proiektua, guztiontzako proiektua.

10 urtetan, lehenengo aldiz agertzen gara aldizkarian argitalpenaren arduradun gisa. Eta denbora horretan guztian beren lanarekin parte hartu duten pertsonen bihotzez eskerrak emateko agertzen gara, aldizkaria gu guztiontzako komunikazio tresna izan dadin egindako lanagatik. Eskerrik asko 10 urte hauetan aldizkariak izan dituen laguntzaile guzti-guztiei. Eurak izan dira Begira proiektuak bizirik jarraitu ahal izateko benetako egileak.

Begira aldizkariaren 10 urteak, funtsean, sinesmen irmoarekin osatzen den proiektu korporatibora zuzendutako ahalegin eta dedikaziozko 10 urte dira. Bertan gara, 10 urte geroago, gure Negozioen bultzada eta lankidetzari esker, gure bazkide, langile eta erretiratuentzako proiektu komun batekin konprometituta.

Bizitzan bezala, Begira-ren 10 urteetan gogoratu eta aipatu gabe utzi ezin ditugun efemerideak eta gertaerak daude, eta aitortza erakutsi nahi diegu bere orrialdeetatik igaro diren pertsona guztiei, artikulua, erreportaje eta inkestak bidez gure proiektuaren protagonista izan diren guztiei, eta beraien lan eta ilusioarekin posible izatea lortu duten guztiei. Gure jardueraz informatzeko eta proiektu korporatiboa partekatzeke eginkizuna bete egin da, Taldeari kohesio handiagoa ematen lagunduz, eta elkartzen gaituen proiektu honen parte izatearen harrotasuna gero eta handiagoa izan dadin lagunduz.

Finean, bide luzea egin dugu, baina beste urrats bat egin behar dugu. Eta urrats berria bi eremu bereizitan gauzatuko da. Alde batetik, zenbaki honetatik bertatik aurkezten den argitalpen inprimatua, komunikaziorako estilo grafiko moderno eta gaurkotuagoarekin, aldizkariaren ataletan eduki berriak gehitu ahal izateko, eta, beste alde batetik, online bertsio bat martxan jartzea, egunero gure errealitate sozio-enpresarialari buruzko informazio gaurkotua ere eduki ahal izateko. Gure On Line bertsio berria ezagutzera gonbidatzen zaituztegu, www.begira.ulma.com helbidean.

Eskerrik asko denoi.



*Bertan gara, 10 urte geroago, gure
Negozioen bultzada eta lankide-
tzari esker, gure bazkide, langile eta
erretiratuentzako proiektu komun
batekin konprometituta.*



CARLOS SARABIA.

*ULMA Taldeko Marka, Komunikazio, EES eta IKT Arloko koor-
dinatzailea eta Begira aldizkariaren Erredakzio Kontseiluko
arduraduna.*

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Internazionalizazio-erantzurik


Gure nazioarteko zabalkundea, ingurune zehatzetan ezartzeko estrategia gisa ulertzen dugu. Hori dela eta, ULMA Architectural Solutions-en, merkatu bakoitzaren errealitatera moldatzen eta malgutzen ditugu gure zerbitzu eta soluzioak, nabarmenki lehiakorra den panorama batean.

Politika horri jarraituz, gure soluzioak eraikuntzaren sektoreko nazioarteko hainbat azokatan aurkezteko apustua egiten ari gara; hori hala, azken lauhileko honetan, azoka hauetan izan gara: Brasilgo Ficons/Expo Airport-en (2), Mexikoko Expo Cihac-en, Marokoko Pollutec-en, Portugalgo Encuentros APSBn eta Frantziako Pollutec-en. Nabarmendu behar da aurten Alemanian, Errumanian eta Aljerian ere aurkeztu ditugula gure soluzioak.

Gure internazionalizazio proiektuari esker, gero eta presentzia handiagoa daukagu merkatu globalean, non 4 filial ditugun (Frantzia, Portugal, Polonia eta Brasil), eta banatzaileak beste 15 herrialdetan.

Kanalizazio eta Drainaketa lerroak lehenik zegoen aukera zabala osatzen datozen produktu berriak aurkeztu ditu. Beste berrietasun batzuen artean, ULMA ezagutarazten ari da aipatutako merkatuetan Multi V+ sistema berria, zeinak aukera ematen duen, modu fidagarri eta bizkorrean, eta ia esfortzurik egin gabe, sareta kanalaren gorputzari lotzeko.

Halaber, soluzioak aurkezten ari dira Fatxada Aireztatuetan eta Itxituretan, proposamen erakargarri eta pertsonalizatuekin bai sistemetan bai plaketan, Aurrefabrikatuetako soluzioez gainera.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Industriarako erronka berria: “Functional Safety” araudiak

“Functional Safety” araudiak benetako erronka bihurtzen ari dira enpresa industrialetarako. IEC 61508 araudia betetzeak, besteak beste, metodologia aldatzea eskatzen du produktuak diseinatu, garatu eta egiaztatzeko orduan.

“Functional Safety” hitzak nazioarteko IEC 61508:1998 araudian txertatu ziren. Arau honek, sistema baten “safety (kalterik eza)” delakoa definitzeko, pertsonari, ingurumenari edo prozesuari eragin dakiekeen kaltearen maila potentziala ez ezik, egindako aplikazioan gerta daitekeen arrisku egoera kritiko baten berezko probabilitatea ere kontuan hartzen du.

IEC 61508 araudia “Functional Safety” delakoaren oinarritzko erreferentzia izatera dator denetarikoko sektore industrialetara: makinaren sektorean, garraiok, sektore aeroespazialera, elektromedikuntzara, energiara... Hala, gero eta araudi sektorial gehiago dago “safety” eskakizunak txertatzen dituen.

“Safety” munduan daukan posizioa berretsi eta aldatetari aurrea hartzeko, ULMA Embedded Solutions sektorean liderrak diren enprekin elkartu da eta, era berean, bertako ingeniariak

TÜV Rheinland bidez prestatu eta aztertu ditu; hala, “Safety Engineer” ingeniariak daude plantillan.

ULMA Embedded Solutions-en partnerrak diren IBM Rational, Freescale eta Texas Instrumentsek “safety” elektronikako azken garapen tresnak eta merkatuko produktuak dauzkate. IBMren kasu berezian, gainera, dagozkien ziurtagiriak lortu dira IBM Rational DOORSen eta IBM Rational Rhapsody-n, zeinak eskakizunak gestionatzeko tresnetan eta modelaketan diharduten hurrenez hurren, eta arlo honetarako bereziki egokiak diren.

ULMA Embedded Solutions-ek, IBM Rational eta EBV Elektronik-ekin lankidetzan, hainbat mintegi egin du gaiari buruz Bilbon eta Madrilan, hainbat sektoretako 20 enpresaren aurrean. Mintegiotan azaldu da aldatetei nola aurre egin eta bertan izandako enpresen produktuak IEC 61508 araudia –edo sektoretako baliokideak– nola betearazi. Hurrengo mintegia azaroaren 27an egingo da Madrilgo IBM Forum-en. Han azalduko dute nola laguntzen duten IBM Rational tresnek “safety” sistema baten diseinuan eta garapenean.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMAk LTZ Online Kudeatzaile Informatikoa garatu eta ezarri du

TALDE ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOAREN LANA ARINTZEKO DISEINATUTAKO TRESNA BERRIA, LAGUNTZA ZERBITZU TEKNIKOAREN KALITATEAREN MESEDETAN ETA ULMAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZARAKO POLITIKAREKIN BAT EGINEZ

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak eutsi egin dio etengabeko hobekuntza politikari eta merkatuan duen lehiarako balio bereizgarria sendotzeko apustua egin du. Horretarako, honetan oinarritzen da nagusiki: bezeroen helburu logistikoak lortzeko ahaleaginean talde osoak duen konpromisoan eta inplikazioan.

Jakinik bezeroen gogobetetasun maila handia dela laguntza teknikoko zerbitzuarekin bereziki, horixe adierazten baitute egindako inkestak emaitzek, non salmenta ondoko zerbitzua puntu gehien merezi duen kalitate aldagai gisa nabarmentzen baita, ULMA Orga Jasotzaileak negozioak baliabideak inbertitu ditu bezeroek horren positibotzat jotzen duten zerbitzu hori hobetzeko eta arintzeko.

Hala sortu da LTZ Online proiektua, ULMA Orga Jasotzaileak negozioaren parkea, bezeroak errentan hartzen edo erosten duena, hobeto gestionatzen lagunduko duten tresnak edukitzeko helburuz. Prozesu honek aukera eman du Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren jarduketara prozesuak estandarizatu eta optimizatzen, informazioa denbora errealean eskuratzeko eta eskuzko administrazio lan guztia arinduko duen tresna bat izateko.

Enpresa barnean, aurrekontuak, lan aginduak, emate agiriak eta fakturak automatikoki sortzeak informazio eguneratu eta gardena izatea dakar, eta horrek errentagarriagoa egiten du bai ULMA Orga Jasotzaileetako makina parkearen bai ordezkoen stockaren gestioa; gainera, bezeroei egin beharreko bisitaldiak hobeto planifikatzen dira, eta



zerbitzuko tekniko bakoitzari dagozkion konponketa, azterketa edo muntaketa lanak egiteko aginduak izendatzen zaizkio modu sistematikoan. Laguntza teknikoko zerbitzuan parte hartzen duten eragile guztiek ordezkoen inbentario eguneratu bat daukate, datu hori online ezagutzeak berez dakartzan abantailekin; horien artean, stockaren birjartze automatikoa LTZko furgonetetan eta lantokietan.

LTZ Online ezarri zenetik sei hilabete igarota, hobekuntza prozesu honetan parte hartzen duten pertsonen egiteko moduetan eta ohituretan aldaketa batzuk sartzeak dakartzan eragozpenak poliki-poliki murriztu ostean, etekinak nabarmen handitu dira. Gaurko egunean, parteen prozesatze automatikoa %57koa da eta horrek zuzeneko eragina du, administrazio taldearen esku hartzea txikiagoa baita parte eta lan aginduen sorkuntzan, izan ere, bertatik bertara diharduten teknikariek sartzen dituzte, boligrafo digital batekin, behar diren datuak online, prozesu estandarizatu eta automatiko osoa aktibatuz. Nabarmentzekoa da beste datu

hau ere: 20tik 4 lanegunera murriztu da batez beste abisu bat hartzen denetik administrazio prozesu osoa itxi arteko denbora.

Oraindik orain, MONDRAGON Korporazioak ULMA Orga Jasotzaileetako LTZ Onlineraren garapena errekonozitu eta txertatu egin du bere Praktika Onen Prozesu barruan, non Taldea osatzen duten negozioek landutako esperientzia arrakastatsua identifika eta zabaltzen diren.

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak, honelako ekimenen bitartez, eutsi egiten dio Salmenta Ondoko Zerbitzuaren kalitatean bikaintasuna lortzeko konpromisoari, horixe baita bere helburu iraunkorretako bat, eta horretarako, epe luzerako harremanak sortu eta mantentzen ditu bere bezeroekin, konfiantzan eta elkarren gogobetetasunean oinarrituz.





ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMAk Garage Kit Pro merkaturatu du

ETXEAREN INGURUNERAKO DRAINATZE SISTEMA, PACK BAKAR BATEAN

ULMA Architectural Solutions kanalizazio eta drainaketan aditua da, eta Garage Kit Pro merkaturatu du, hau da, 3 m-ko etxe ingurunerako drainatze sistema bat eraikitze behar diren elementu guztiak dituen pack bat. Euskal Herrian fabrikatua eta EN 1422 Europako Arauari jarraituz diseinatua, garajerako Kit hau bereziki Europa osoko brikolajeko banaketa eta saltoki handi guztietara zuzendutako produktua da.

Osagaiak:

- 1 m-ko 3 kanal: altzairu galbanizatuzko bere sareekin.
- 2 estalki: lerroaren hasiera eta amaiera ixteko. Altzairu herdoilgaitzez fabrikatuak.
- Orrizko iragazki bat: garbitzeko atera daiteke. Altzairu herdoilgaitzez fabrikatua.

ABANTAILA nagusiak:

- Arina eta manipulatzeko eta

garraiatzeko erraza.

- Muntatzeko erraza, torlojurik eta erreminta berezirik gabe.
- Kanpoko egitura nerbioduna, zurruntasun handiagoa izateko eta hormigoira hobeto lotzeko.
- Ezin hobea garaje, patio, lorategi eta jolasguneetako sarreretarako.
- Erresistentzia handia produktu kimikoekiko: gasolina, gasolioa, olioak...
- Kanalen % 100 material birziklatuz fabrikatuta dago, ingurumenaren mesedetan.
- Kanalen arteko konexioa erraza da eta eskuz egiten da osorik, mihizadura sistemari esker.
- Irteera bertikalak, Ø90 mm-ko eta Ø110 mm-ko tutuekin bateragarriak.
- Erraz lotzeko estalkiak ixteko, ar eta eme muturretarako baliagarriak.
- 90º-ko alboko konexioa, gurutzak, T formak eta L formak egiteko.
- Saretak erraz eskuratzen eta irekitzen dira, garbitzeko eta mantentzeko.



ULMA CONSTRUCCIÓN


ULMA Construcción-ek egoitza berria du Polonian

3.500 M² BULEGOETARAKO, 2.800 M²-KO BILTEGI BAT LANGILEENTZAKO GUNEEKIN ETA AZPIEGITURAK

Datozen hilabeteetan, ULMA Construcción-en poloniar filialaren egoitza berria martxan egongo da. Instalazioak Koszajec-en ezarri dira, Varsovia inguruan, eta gaur egun eraikitzen ari diren A-2 autopistarekin komunikaturik egongo dira. Egoitzan, bulegoek 3.500 m² hartuko dute; gainera, biltegi bat ere egongo da langileentzako guneekin, eta azpiegiturak ere bai.

Maiatzean, lehenengo harria jartzeko ekitaldia egin zen. Bertan izan ziren tokiko agintariak, eraikuntza enpresako kideak eta ULMAko ordezkariak, bai filialekoak bertakoak bai Zentralekoak.

Egoitza eta logistika zentro izango den honen helburuak hauek dira: bezeroari zerbitzu hobea ematea eta lanerako giro atsegina sortzea langileentzat.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Soldaduraren kontrola garatzeko proiektua ULMA Conveyor Components-en

IK4 LORTEK-ekin batera, ULMA Conveyor Components-ek Soldaduraren Kalitate Kontrola garatzeko proiektu bat hasi du. Prestakuntza eta aholkularitza pertsonalizatuko hainbat jardunaldiren bidez, proiektuak honakoak biltzen ditu: produkzio prozesuen azterketa,

PPI definizioa, produkzio soldatua kontrolatzeko metodologia eta soldadura prozesuak ikuskatzeko kontrola.

IK4 LORTEK Goierriko Berrikuntza Gunean dago, Ordizian, eta ikerketa berritzailean diharduen zentro bat da, lotura teknologietan espezializatua.



ULMA TALDEA

ULMA Taldeko bazkide eta langileen seme-alabentzako marrazki lehiaketaren sari banaketa egin da

Joan den irailaren 27an ULMA Taldeak antolatutako eta bere bazkide eta langileen seme-alabei zuzendutako Marrazki Lehiaketaren IV. edizioako sari banaketen ekitaldia egin zen "Margotu ditzagun gure herriak" izenburupean, haurrek marrazki bidez euren herriak adierazten diena azaldu zuten.

Parte hartzaileak bi mailatan banatu ziren: 5 urte arteko haurrak eta 6 eta 10 urte artekoak. Irabazleak hauek izan ziren: Eritz Cerqueira, 5 urte artekoen mailan (ULMA Piping-eko bazkide den Victor Cerqueiraren semea); eta 10 urte artekoen mailan Malen Artetxe, era berean ULMA Piping-eko bazkide den Romu Artetxeren alaba. Irabazleek quad bateriaduna eta flicker patinetea eskuratu zuten sari gisa. Gainera, sari banaketen ekitaldira etorritako guztiek margo sorta txiki bana jaso zuten euren parte hartzea eskertzeko, eta etortzeko aukerarik izan ez zuten parte hartzaileek postaz jaso zuten beraien margo sorta. Aurten 70 marrazki baino gehiago jaso dira eta parte hartzea, joan den urtearekin alderatuz gero, asko igo da.

Informazio gehiago: <http://www.ulmafundazioa.com>



ULMA PIPING

SAUDI ARAMCOren bisitaldia

Irailan, ohorea izan zen ULMA Piping-entzat Saudi Aramco petrolio enpresako erosketa saileko langileen bisita jasotzea. Saudi Aramco Saudi Arabiako Erresumako estatu enpresa bat da.

Enpresa hau munduko lehena da petrolio erreserbei dagokienez, 260 milioitik gora upelekin, eta egunean 9,1 milioi upel ateratzeko ahalmena du. Enpresaren izaera integralaren erakusgarri, esan behar da daukan fintzeko ahalmena egunean 4 milioi upeletik gorakoa dela. Baina zifra horiek berez harrigarriak izanik, nabarmentzekoa da munduko laugarren enpresa dela gas naturaleko erreserbei dagokienez, eta munduko lehena produktu horren esportazioan.

Lehen puntuan adierazi dugun legez, enpresa hau Saudi Arabian dago kokatuta. 1933an sortu zen, saudiarabiar eta amerikar gobernuen arteko lankidetzaren fruitu. Hortik datorkio hasierako ARAMCO izena, zeina Arabian American Oil Company-ren akronimoa baita. 1970 eta 1980. urte bitartean, enpresaren kontrola saudiarabiar gobernuaren eskuetara pasatu zen poliki-poliki, eta hortik dator Saudi Aramco izenera aldatu izana. Enpresak munduko hainbat lekutan ditu bulegoak, hala nola Txinan, Japonian, Herbeheretan, Korean, Singapurren, Arabiar Emirerrietan, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan. Gaur egun 54.000 pertsonako langile zerrenda dauka, 70 herrialdeetan banatuta.

ULMA Piping-ek modu aktiboan dihardu lankidetzan enpresa honekin

–Saudi Arabiaren garapenaren motor nagusia–, bai hainbat findegiren eraikuntzan bai lehendik zeudenen handitze lanetan. Lankidetzaz hori zuzenekoa da batzuetan; bestetan, ingurunekeo banatzaile nagusien bidez eta enpresa lantzen ari den proiektuak gauzatzen dituzten munduko ingeniari nagusien bidez mamitzen da. Azken 2 urteetan hainbat proiektu garatu da; horien artean, nabarmentzekoak dira Yambu eta Jubaileko findegiak, biak ere gune erraldoiak, datozen urteetan munduko findegi nagusiak izango direnak ziur aski.

Bezero honek ULMA Piping-en sektorean duen garrantziaz jardun ondoren, azpimarratu behar da bisitaldia erabat arrakastatsua izan zela. Saudiarabiarrek oso inpresio ona jaso zuten. Inpresio hori bat dator ULMA Pipingek merkatuan duen posizioarekin, merkatuko liderra izaki.

Saudiarabiarren helburu argia kalitatea bilatzea da, espezifikazio maila handiarekin, eta ULMArekin lankidetzan jarraitzeko prest agertzen dira. Hori guztia akuilua izan behar da ULMA Piping-en misioa osatzen duten balioetan gogor lan egiten jarraitzeko, kalitatezko produktu batekin eta sektoreko batez bestekoaren oso gainetik ibili behar duen bezero orientazio batekin. Enpresa honek mugarik gabeko anbizioa du datozen urteetarako, kontuan hartuta ikaragarriko baliabide naturalak dituela; horrek erakusten du ULMAk norainoko aukerak izan ditzakeen datozen urteetan.



ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruck-ek irauli egin ditu laborategiak, neurrira diseinatutako gama berria aurkeztuta

ULMA Inoxtruck-ek ekipamendu higienizagarri eta ergonomikoen gama berria aurkeztu berri du Madrilgo P-MEC farmazia azokan. Ekipamenduok farmazia, kosmetika, aeronautika eta mikroelektronika laborategien beharrez neurrira diseinaturik daude.

Azokara mundu osotik (Suitza, India, Alemania, Frantzia, UK...) joandako profesionalak emandako onarpen handia ekipamenduen balio erantsi handian oinarritzen da.

ULMA Inoxtruckek lagundu egiten du gela zurien higieena eta segurtasuna eta langileen ergonomia ahalik eta gehien optimizatzen, sektorearen eskakizunei erantzunez, higieena eta ergonomia ekipamenduen diseinuan, fabrikazioan eta mantentzean txertatuz. Hona hemen ekipamenduon ezaugarriak:

- %100 herdoilgaitzak
- Jasotzeko katerik gabe
- Koipeztatzeko gunerik gabe
- Gainazalaren zimurtasunik txikiena, ertz barik
- IP \geq 65 babesa duten osagai elektronikoak
- ISO/GMP araudiei jarraituz

- ION-LITHIUM bateriak (0 isuri, eraginkortasun energetiko handiagoa, pisu eta tamaina txikiagoa, bizitza erabilgarri luzeagoa, lehenago kargatzen dira...)
- Arinak eta erabilerrazak
- Isilak, kutsadura akustikorik gabeak

Gama osoa ATEX-atmosfera leherkorren kontra babesteko diseinaturik dago, su iturriak sortzea ekidinez (deskarga elektrostatikoa, partikula gorria, txinparta, sugarra etab.) eta ondorioz, leherketak saihestuz.

Azken finean, diseinu higieniko, ergonomiko, arin, isil, trinko eta iraunkorreko ekipamendu hauek mantentze lan txikiena, segurtasunik handiena eta bizitza erabilgarri luzea bermatzen dute.

ULMA Inoxtruck-ek bere gama garatzen dihardu helburu honekin: funtzionaltasun eta material berriak txertatuz joatea, bezeroen premien neurrira eta teknologia zentroekin lankidetzan.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systems-ek SMART HEALTH SERVICES-en %20 erosi du

ULMA Handling Systems-ek SHS-SMART HEALTH SERVICES-en kapital sozialaren %20 eskuratu du bazkide gisa. SHS enpresa espezializatua da osasunaren sektorean eta Hornidura eta Logistika Prozesuak gestionatzeko premiei soluzioak ematen dizkie.

Erosketa honek aukera emango du SMART HEALTH SERVICES-en erosketa eta logistika zerbitzuak ULMAren osasun arloko logistika soluzioekin integratzeko, merkatuari ospitaleko barne logistikako soluzio integral bat eman ahal izateko.

Akordio honek beste mugarri bat jarri du ULMAren osasun sektoreko ibilbidean, izan ere, ULMAk logistikako aholkularitza eta automatizazio proiektuak garatzen dihardu hainbat ospitaletan, farmaziatan eta sendagaiak banatzen diren zentroetan.

SMART HEALTH SERVICES MONDRAGON HEALTH-en egituran txertaturik dago, hau da, Korporazioaren dibisio soziosanitarioan, eta KUDEA, LKS eta ULMA Handling Systems-en partaidetzarekin.



ULMA Piping- ek lankidetzan dihardu ROPARUN Elkartearekin minbiziaren aurkako borrokan

ROPARUN-EK 520 KILOMETRO INGURUKO ERRELEBO LASTERKETA ANTOLATU DU, PARIS ETA HAMBURGO HIRI ENBLEMATIKOETAN HASI ETA BI LASTERKETOK HERBEHEREETAKO ROTTERDAM HIRIAN PARALELOAN BUKATZEKO

Kooperatibak dituen balioei leial, ULMA Pipingek kolaboratu egin du, Europako bere bezero nagusietako baten bidez, ROPARUN elkartearekin minbiziaren kontrako borrokan.

ROPARUN fundazioa 1992an sortu zen minbiziaren kontrako borrokari ekonomikoki laguntzeko helburu nagusiarekin. Horretarako, 520 kilometro inguruko errelebo lasterketa bat antolatu zuen, Paris eta Hamburg hiri enblematikoetan hasi eta bi lasterketok Herbehereetako Rotterdam hirian paraleloan bukatzeko. Aurten lasterketaren 21. edizioa egin da, beraz, horrek argi erakusten du lasterketaren garrantzia norainokoa den. Lasterketaren berezitasuna da pertsonak taldean lan egiten dutela kirol errendimendua eta minbiziak jotako pertsonentzako fondoak biltzeko helburua uztartzeko. Bizi osorako abentura izena ere jar lekiokie. Hori ere argi geratzen da leman, zeina berbera izan baita sortu zenetik: "Add life to the days, where days can no longer be added to the life", honelaxe itzul genezakeena: "Erantsi bizia egunei, biziari egunik ezin erantsi eta".

ROPARUN talde bat zortzi lasterarik osatzen dute gehienez, eta horietako bakoitzak 65 kilometro egiten du batez beste, hau da, maratoni baten oso gainetik. Gainera, talde bakoitzean bi txirindulari eta laguntza taldea osatzen duen hainbeste pertsona egon behar da. Hor sartzen dira kontrolatzaileak, medikuak, catering enpresak eta errepideko kapitainak. Taldeak beraiek arduratzen dira zeregin horietaz eta talde bakoitza 25 pertsonak osatzen du batez beste.



Erronka fisikoaz gainera, taldeak kausarako fondoak biltzeko ahalegina ere egin behar du. Horretarako, taldeek askotariko jarduerak antolatzen dituzte fondoak biltzeko. Horien artean, supermerkatuetako poltsak, automobilen garbiketara, bilketak eta babesleen bilaketak. Taldekideek, gainera, zozketetarako txartelak ere saldu behar dituzte, eta diru sarrera horiek karitatera bideratzen dira.

2012an 325 taldek parte hartu du, eta denen artean 5,5 milioi euro bildu dute, aintzat hartzeko moduko zenbatekoa, bai horixe. Kontuan hartuta lasterketaren lehen urtean, 1992an, 13 taldek parte hartu zuela eta 45.000 € bildu zirela, argi dago ekimen goresgarri eta karitatezko honek indar handia hartu duela bere 21 urteko bidean.

Edizio honetan, helmugara iritsi den lehen taldeak 31 ordu behar izan du ibilbidearen 520 kilometroak osatzeko.

Diru gehien biltzea lortzen duten

hiru taldeei eta Rotterdamera iristen diren lehen hiru taldeei omenaldia egiten zaie ROPARUNek egiten duen azken ospakizunean, hau da, lasterketa amaitu eta handik aste gutxira. Gaur gauean jakinaraziko da ROPARUNek zenbat diru bildu duen gutxira. ROPARUNaren azken hogeitaz bederatzeko berrogeita bost milioi eurotik gora bildu da minbizia daukaten pertsonen laguntzeko.

Lasterketa honi eta lasterketa antolatzen duen fundazioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo web orrialde honetara: www.roparun.org.





ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricola-k 1.3 hektareako mintegi bat egin du ITALIAN

INSTALAZIOA HAINBAT GUNEK OSATZEN DUTE ETA GUNE BAKOITZA BERTAN EGIN BEHARREKO ZEREGINAREN ARABERA BEREIZIRIK DAGO

Urteak dira ULMA Agricola berotegi instalazioak egiten hasi zela Italian, non Espainiako berotegien fabrikatzaile ospetsu bihurtu baita, eta oraintsu 1,3 hektareako instalazio bat entregatu du Apulia eskualdean mintegi bat egiteko, paisajismorako landareen eta zuhaixken aldaxkak lantzeko erabiliko dena batez ere.

Instalazioa hainbat gunek osatzen dute eta gune bakoitza bertan egin beharreko zereginaren arabera bereizirik dago. Lehen gunea sustraiak egiteko gunea da eta 3.800 m² hartzen du M8 motako nabeekin. Biltegiatzeko eta landare ontzietan lan egiteko gunek M12.8ko 1.500 m² hartzen du, antolaera horrek aukera ematen duelako oinen artean eta zenitera bitarteko altueran leku handiagoa izateko. Landareak hazteko 7.000 m²-ko espaziorako G9 egitura hautatu da, diseinu gotikoa

mesedegarria baita barne bolumen handiagoa lortzeko, barnean aprobeitza daitekeen espazioa maximizatzeko, eguzki erradiazioa hobeto aprobeitzatzeko eta kondentsazioa isur hodietara husteko.

Modulu horiek guztiak aireztapen zenitaleze, sabaiko ganbera puzgarri bikoitzez, pantaila termikoz eta perimetroko gillotina erako aireztapenez horniturik daude.

Azkenik, 1.400 m²-ko eta bi isurkiko 12.8 biltegi bat instalatu da eskabideak prestatzeko, bidaltzeko eta bulegoetarako. Sandwich panalez estalia dago eta gillotina erako aireztapena du, polikarbonato zelularrarekin alboen goialdean, barneko airearen birzirkulazioari laguntzeko. Biltegiaren sabai gainean panel fotovoltaikoak instalatu dira autohorniketara bideratuko den energia eskuratzeko; gainerakoa sarera salduko da.



ULMA PACKAGING

Precinox-en eta Packaging-en Ezohiko Batzarrak

Joan den azaroaren 5ean ULMA Precinox, S.Coop.eko eta ULMA Packaging, S.Coop.eko bazkide guztiak ezohiko batzarretara deituta zeuden, lehenengo kooperatiba bigarrean integratzeari buruz bozkatzeko.

Aurretik, urriaren 22, 25 eta 26an, zegozkien informazio hitzaldiak egin ziren Santa Anan eta Legazpin, integrazio proiektua aurkezteko.


Egin zen lehenengo batzarra Precinox-ekoa izan zen, hilaren 5ean, goizean, Legazpin. Bozketaren emaitza ia aho batekoa izan zen kooperatiba Packaging-en integratzearen alde.

Beste batzarra, Packaging Negoziolari zegokiona, 14:30ean zegoen deituta lehenengo deialdian eta 15:00etan bigarrean, Oñatiko kiroldegiko Zubikoa frontoian.

Parte hartzea % 71,8koa izan zen, eta, bozketaren ezaugarriak kontuan hartuta, % 75 gainditu ez zenez, erabaki zen batzarrari integrazioari buruz aurkeztutako proposamena gehiengo kualifikatuz erabaki beharko zela.

Bai Josu Odriozola lehendakariak, bai Cecilio Lejarreta gerenteak, proposamena aurkezteko azalpenak eman zituzten.

Azkenean, bozketaren emaitza izan zen botoen % 53,20 alde, % 44,18 kontra eta botoen % 2,62 zuri, eta, ondorioz, integratzeko proposamena ez zen onartu.



ULMA PIPING

ULMA Piping-ek akordioa sinatu du Koreako ingeniari-tza bat brida bereziz hornitzeko

ULMA Piping-ek aldi estrategikoa itxi du Koreako ingeniari-tza indartsu batekin gasa prozesatzeko planta bati brida hornikuntza egiteko. Horren barruan biltzen dira kogenerazio planta bat, gasaren tratamendurako fabrika bat eta berreskurapen planta bat, besteak beste, Saudi Arabian.

Proiektu honen berezitasuna hau da: hornitu beharreko brida guztiak araz kanpo daude. Hori dela eta, ULMAko ingeniari-tzako taldeak, bezeroarekin lankidetzan estuan, behar diren kalkuluguztiak egin ditu bridak behar bezala diseinatzeko. Balio erantsi handiagoa emateko helburuz, ULMAk emaitza guztiak egiaztatatu ditu elementu finituen (FEM)

analisiaren bitartez, eta azkenean bezeroak balidatu ditu.

Ez da lehenengo aldia ULMA Piping-ek halako zerbitzua ematen diela ingeniari-tzei, baina kasu hau oso berezia da, zeren eta diseinatutako bridak 5 tonatik gorakoak baitira, eta badaude 17 tonakoak ere.

Lankidetzan estu horri esker, bezeroak konfiantza osoa jarri du ULMArekin, izan ere, historian lehen aldiz, bridei dagozkien estankotasun-junturen hornikuntza osoa egitea ere eskatu dio ULMArekin. Horretarako, amaierako bezeroak onartutako hainbat fabrikatzaileekin harremanetan jarri (proiektuan parte hartu ahal izateko amaierako bezeroak onartu eta homologatu beharra dago) eta modu bateratuan lan

baldintzak jasateko junturarik egokienak diseinatu dira.

Une honetan, ULMA lantzen ari da bezeroari proba hidrostati-koak egitea eskaintzeko aukera. Proba horiek funtsezkoak dira halako proiektuetan linearen behin betiko instalazioa egin aurretik, multzo osoaren funtzionamendu zuzena eta estankotasuna ziurtatzeko (bridak + junturak + torlojuak).

Eskabide honek ULMA Piping-en posizio estrategikoa indartzen du duela urte batzuk hasitako proiektuaren negozioan eta, zehatzago esanda, Koreako merkatuan, non 2011n bulego komertzial propioa irekitzea erabaki baitzuen.

ULMA HANDLING SYSTEMS

Brasilgo ULMA Handling Systems-eko Operazioetako Zuzendari berria

Gorka Sudupe izango da ULMA Handling Systems-ek Brasilgo Sao Paulon duen filialeko Operazioetako Zuzendari berria. Zuzendaritza berriak ahalegina egingo du filialeko talde komertziala indartzeko, negozioa Brasilgo merkatuan handitzeko eta filialaren eta matrizearen artean zuzeneko komunikazio bide bat ezartzeko.

Gorkarekin batera, Eñaut Sarriegi ULMA Handling Systems-eko kidea ere ibilbide berri bati ekingo dio Brasilgo filialean, non helburua hau da: Brasilen Supply Chain Software eta Pick to Light Systems negozioa garatzea.

Bi izendapenok ULMA Handling Systems-en apustu estrategikoaren barruan sartzen dira, hau da, Brasilgo merkatuan presentzia handitzeko apustuaren barruan.



ULMA Fundazioak arrakastaz burutu ditu 2012. urteko ekimenak

ULMA TALDEAK, BERE FUNDAZIOAREN BIDEZ, ARRAKASTAZ BURUTU DITU PARTE HARTZEARI DAGOKIONEZ, 2012. URTEAN ZEHAR BERE INTERES TALDE DESBERDINEI ZUZENDUTA ANTOLATU DITUEN GIZARTE SUSTAPENeko EKIMENAK ETA JARDUERAK.

ULMA Fundazioa 2010. urtean gizartean aurkeztu zenetik hainbat ekimen eta jarduera antolatu dira, helburu nagusi honekin: bere ingurunearen gizarte garapenean eta sustapenean eragitea. 2012. urtean zehar ekimen eta jarduera askotarikoak burutu dira publiko desberdinari zuzenduta. Besteak beste, ULMAko bazkide eta langileek euren senideekin Donostiara egindako bidaia aipa dezakegu, ACB Ligako saskibaloia partida bat ikustera joan zirenekoa. Aipatzekoa da, halaber, hezkuntzaren aldeko boligrafoak ekimena, hezkuntzaren alde eta Nikaraguan lan egiten duen "etagukzergatikez" hezkuntza proiektuaren mesedetan boligrafoak batzeko abian jarritako kanpaina. Bestalde, ekimen aipagarria



>> Hausnartzeko Zinema Saioak

izan da 11 jatorre 11 menu osasungarri kanpaina, kanpainari atxikitako jatorreetan menu osasungarria aukeratzen zuena saritzeko. Bulego Berdearen Gida izan da beste ekimen aipagarri bat: bazkide eta langileei zuzendutako dokumentua, bulegoetan kostuak aurreztu eta ingurumen eraginkortasuna lortzeko garrantziaz jabeazteko. Erretiratuei zuzendutako Argazkilaritza Ikastaroa, bazkide eta langileen seme-alabentzako Marrakzi Lehiaketa ("Margotu ditzagun gure herriak" izenburupean), Oñatiko Ikastetxeetako DBHko ikasleei zuzendutako Hausnartzeko Zinema Saioak -zinemaren baliabidea erabiliz hausnarketarako ohitura eta izaera kritikoa sustatzeko asmoz-, eta Elkartasun Azoka, tokiko Hermansoloña

GKEarekin lankidetzan.

Era berean, aipatzekoa da bere ekimen eta jarduera guztiak sustatu eta hedatzeko, ULMA Fundazioak bere Interes Talde guztiei Zuretzat Buletina banatzen diela.

Azkenik, eta 2013. urteari dagokionez, ULMA Fundazioaren estrategia izango da ULMA Fundazioaren ekimen eta jardueretan aktiboki parte hartzeko aukera eskaintzea, izan ere Gizarte Sustapeneko Batzorde bat eratzeko asmoa dago eta, horren bidez, nahi duen guztiak aukera izango du urteko ekimenen diseinuan eta antolaketan laguntzeko.



>> Hezkuntzaren aldeko boligrafoak



>> Argazki ikastaroa erretiratuentzat



>> Menu osasungarrien kanpaina

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

AZKARek bere makina parkea berritu du ULMAREN eskutik

AZKAR Iberiar Penintsulako eta Uharteetako operadore logistikoen liderra da, European estaldura osoa du, eta orain orga jasotzaileen parkearen zati handi bat berritu du ULMArekiko lankidetzak kontratua luzatuta. Nazioarteko operadore logistikoak zerbitzu globala eskaintzen du horniduraren kate osoan, garraioa eta banaketa barne, eta orain dela bi urte ULMAren jarri zuen bere konfiantza, bi etheen arteko lankidetzak hitzarmen baten bidez. Gaur egun ULMA Orga Jasotzaileak etxeak soluzio logistiko integrala eskaintzen dio Azkarri, Mitsubishi orga jasotzaileen parkea kudeatzeko.

Hitzarmenean sartzen da instalazio guztietan jarritako ekipamenduak ondo mantentzea, parkeko ekipamenduak mailaz maila ordeztuz joatea, organ mota eta kopurua bezeroaren lanerako behar puntualetara etengabe egokitzea eta aholkularitza pertsonalizatua ematea, Mitsubishi orga jasotzaileak ondo, seguru eta eraginkorki gidatzea bermatzeko.

Bi konpainien arteko sinergia profesionalak eta etengabeko interakzioak lagundu egiten dute ULMA Orga Jasotzaileak hurbiltasunez eta arin erantzun dezan, soluzio integral pertsonalizatuak, malguak eta berritzaileak eskaintzeko, makina kopuru handia eta askotarikoa duen bezero bati eta garaiaren arabera lan egiten duen enpresa handi baten berezko lanari egokituta.

ULMA Orga Jasotzaileak bezeroari zuzendutako orientazio politketan inbertitzen du, elkar ulermenean, inplikazioan eta konpromisoan oinarrituta, bi aldeentzako harreman komertzialak iraunkorrak eta emankorrak izan daitezzen.



ULMA CONSTRUCCIÓN

Gran Bridge zubia, beste pauso bat ULMAREN eta Aluma Systems-en arteko aliantzan

Grand River gaineko zubiak Ontarion ekonomikoki borborka dauden bi gune (Kitchener eta Cambridge) lotuko ditu 1963. urtetik lehen aldiz, eta, gainera, Kanadako autopista garrantzitsuenetarikoa bat den 401.aren konexioari ere mesede egingo dio.

Elkarren segidan jarritako dobelen metodoarekin in situ eraikitako bao hau izan da, hain zuzen, 80ko hamarkadatik aipatutako teknikaren bidez egin den lehen zubi Ontarioan.

ULMA Construcción-ek eta Aluma Systems-ek eskainitako produktuen eta zerbitzuen arteko konbinazioak zerbitzu integrala eman dio bezeroari halako proiektu konplexu batean.

247 metro luze, baditu lau bao. Grand ibaia gainditzen duen baorik handiena 95 metrokoa da.

ULMA Construcción-ek bezeroaren zerbitzura jarri ditu sistemarik aurreratuena eta European ohikoak diren gorabehera handiko orografietarako aproposa den sistema hori aplikatzeko espezialistarik kualifikatuena.

Kasu honetan CVS aitzinamendu orga bi erabili dira. Orga bakoitza baoko pilare banatik abiatu da eta aldi berean egin dute aurrera kontrako norabidean, baoaren erdian topo egin arte. Guztira, 4,75 metroko 19 dobela egin dira. Aitzinamendu bakoitzean, etengabeko sekzio aldaketak

sistemaren malgutasunari eta egokitze errazari esker zuzendu dira.

Materialez hornitzeaz aparte, ULMA Construcción-ek aplikazio ingeniari-tza, egituraren aurreruntaketa eta muntaketa espezialisten laguntza jarri ditu.

MK Sistemaren kontzeptu modularrean oinarrituz, orga hau dobela geometria desberdinetara egokitu da. Barneko eta kanpoko enkofratuak desberdinak dira, eta horrek lan zikloa laburragoa izatea ahalbidetu du. MK elementu estandarrei esker, ekipamenduaren pisua eta kostuak minimizatu egin dira neurri-eragineko beste orga batzuen aldean.

15 eta 18 metro bitarteko pilareak ORMA enkofratuarekin egin dira, goraka egiteko CR-250 kontsolarekin konbinatuta. Garabiaren mugimendu bakar batean, multzo bakoitza hurrengo jarpenera jasotzen da plataforma zabalekin batera.





ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak modelo berri eta sarituak txertatu ditu biltegiko ekipamenduen gaman

Mitsubishi-ren PREMIA ES transpalet elektriko seriea aurkeztu berrikan, ULMA Orga Jasotzaileak negozioak biltegi barruan eta kanpoan garatutako aplikazioetarako ekipamenduen gama osatzen eta espezializatzen duten bi serie berri aurkeztu ditu.

Plataforma eta PBV20ND palet bikoitza daramaten transpalet elektriko berriak bereziki diseinatuta daude kamioietan eta gune metatuetan erabiltzeko, beren tamaina konpaktua eta maniobragarritasun handia direla eta. PREMIA EM serieak bi paleten aldibereko manipulazioa ahalbidetzen duen funtzionaltasun berri bat sartu du, potentzia eta errendimendu handiko ekipamenduz osatuta dago,

eta horrek eraginkortasuna bermatzen du industria aplikazio intentsiboetan, baita 12 km/orduko abiadura ere, nahi izanez gero.

Abiadura horixe hartzen dute eskariak prestatu eta ibilbide luzeko aplikazioetarako diseinaturik dauden VELIA ES serieko maila ertaineko eskari jasotzaileek. Serie berriak hobetu egiten ditu aurrekoaren prestazioak. Aurrekoa, OPB20NE modeloa, saritu egin zuen Erresuma Batuko orga fabrikatzaile eta banatzaileen Elkarte independentea den Forklift Truck Association-ek, orgaren diseinu ergonomikoagatik.

Gidari laguntzaileko transpalet elektriko serie berriak diseinuagatik jaso zuen, hain zuzen ere, "red.dot"

edo "puntu gorria" nazioarteko sari ospetsua. Nazioarteko errekonozimendu horrek berretsi baino ez du egin bi markek hartutako bidea, ekipamenduen erabiltzailearen erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko ahaleginean.

Biltegiko ekipamenduen serie berriok merkaturatu izanak berriro ere erakutsi du bai ULMA Orga Jasotzaileak bai Mitsubishik beren produktu gama sustatu eta berritzeko hartua duten konpromiso sendoa, izan ere, osatu duten ekipamendu espezializatuen katalogoak zehatz-mehatz erantzuten die aplikaziorik espezifikoenei ere, gama osoaren kalitateari, fidagarritasunari eta bermeari eustez gainera.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Components-en proiektua Arabiar Emirerri Batuetako Gasco Ruwais-erako

ULMA Conveyor Components-ek arrabolen hornikuntza osoa egiten du Sufre Pikortatuaren Garraio proiekturako eta Ruwais SHT-2 Proiektuaren Administrazioarako, Arabiar Emirerri Batuetan.

ULMA Conveyor Components-ek arrabolaz hornitu ditu Italiako Tenova,

Espainiako PHB Weserhütte eta Alemaniako Thyssenkrupp inženiaritzak.

Italiako Techint inženiaritza nagusiak 600 milioi dolar baino gehiagoan balioztatu den sufre tratamendurako terminal berri bat eraikiko du Gascozentzat.

Planta EPC oinarrien gainean eraikiko da Gascozentzat. Abu Dhabi National Oil

Company (ADNOC) estatu enpresaren subsidiario bat da Gasco. Zehazki, Techint-ek terminal barruan instalatu beharreko makina guztiak jarriko ditu, materiala maneiatzeko operazio hauetarako: sufrea deskargatzea eta biltegitratzea eta ondoren kai berrira eramatea, non portuko garabi bik barkuetan zamatuko duten sufrea.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systems-ek ateari ireki ditu nazioarteko merkatu berrietan

Negozia nazioartean murgildu izanak mugari berri bat jarri du ULMA Handling Systems-en historian, izan ere, hitzarmenak izenpetu dira Txile, Peru, Uruguai, Venezuela, Kolonbia eta Georgiako enprekin.

Proiektu guztien artean, aipagarria da La Floridako ospitalerako landuko dena, Txileko Santiagon, ULMA Handling Systems-ek Txilen egingo duen lehen proiektua izango baita eta herrialdeko aurreneko ospitalea izango baita bere hornidura kate osoa automatizaturik izango duena.

Proiektu logistikoak ahalbidetuko du sendagaiaren trazabilitatea osoki gestionatzea: biltegian jasotzen denetik pazienteari entregatu eta kontsumitu arteraino.

Sistema gestionatzeko honakoak egongo dira: ULMAko 2 karrusel horizontal, biltegia gestionatzeko sistema bat eta Pick to Light Systems gailuen bitartez eskariak taldeka prestatzeko sistema bat. Baina, zalantza barik, proiektuaren bihotza eskariak biltegitatu eta prestatzeko sistema da (karruselak). Sistema helburu honekin diseinatu da: produktibitate ratioak ahalik eta gehien handitzea, garraio mugimendu eta zereginen kopurua ahalik eta gehien txikituz. Soluzioa fidagarria eta erabat malgua da, beste sistema logistiko batzuekin bikain integratzen dena.

Estrategia eta hitzarmen komertzial berriak zehaztu izanak negozioa merkatu berrietan sarrarazi du eta nazioarteko filial batzuk berregiturazi ditu.

ULMA CONSTRUCCIÓN

ULMA Construcción-ek laneko segurtasun eta osasunari buruzko AENOR errekonozimendua jaso du

Saria Bilbon egindako Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Nazioarteko X. Biltzarrean entregatu zen. Ekitaldi horren bidez, AENORek errekonozitu egin nahi izan zituen OHSAS 18001aren arabera beren langileen segurtasuna ziurtatzeko konpromisoa hartua duten entitateak. Izan ere, gestiorako tresna honek konfiantza sortzen eta transmititzen du langile, bezero eta alderdi interesdunen artean. Saria emateko ekitaldian, beste batzuen artean, honako hauek parte hartu izana



nabarmendu nahi dugu: Osalaneko (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) zuzendari nagusia den Pilar Collantes Ibañez andrea; Francisco Marques Marques jauna, Laneko Segurtasun eta Higieneko Erakunde Nazionalako (INSHT) zuzendariorde teknikoa eta Luz Emparanza Bereciartua andrea, AENOReko zuzendaria Euskadin.

Errekonozimendua Euskalduna Jauregian eman zuen Pilar Collantes Ibañezek.



ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricola-k berotegi bat instalatu du GORBEIA zentro komertzial barruan

Arabako mintegirik handienak iragan urriaren 5ean zabaldu zituen ateari. Gorbeia zentro komertzialaren bihotz-bihotzean, proiektuak lorezaintzako zerbitzu integrala eman nahi du.

“Lorategi estaliak” hartzen dituen 3000 metro koadroetan, ULMA Agricola-k instalatutako 145 m² inguruko berotegia dago. Bertan izango dute hitzordua landareak oparitzuz norbait hunkitu nahi dutenek eta, batez ere, baratzegintza eta lorezaintza gogoko dutenek, hala adituek nola hasiberriek.

Gorbeiak, mintegi handi hau irekita, bat egin du marea berdearekin.

Bertan emango dira, besteak beste, inausketa, ongarritze, izurriten kontrako tratamendu, txerto, ureztatze eta nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak. Era berean, eskola ikasleentzako prestatutako leku bat ere egongo da, ikastetxeek mintegia gaztetxoekin erabiltzeko aukera izango baitute.

Berotegiaren ezaugarriak:

- Multikapera makurra mota honetakoa: M9 x 16 metro luze.
- Kanal azpiko altuera: 2.8 m.
- 4 mm-ko polikarbonato trinkozko estaldura.
- Arku erdiko aireztapen zenitala.
- Pantaila termikoa.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Fatxada Aireztatuekin zaharberitutako 14.000 metro.

BARTZELONAKO CORNELLA DE LLOBREGAT
HERRIAN 4 ETXEBIZITZA BLOKE
ZAHARBERRITU DIRA, ZEHAZKI FONTSANTA
PLAZAN.



Proiektua Cornellako udalaren sustapen sozialeko ekimen bat izan zen, PROCORNELLA enpresaren bitartez (Cornellako Sustapen sozial, urbano eta ekonomikorako udal enpresa), ingurunean hainbat hobekuntza egiteko helburuarekin.

4 eraikinek hezetasun eta kondentsazio arazo larriak zituzten eta, horregatik, 350 bizilagunek etxebizitzaren kalitatea eta erosotasuna hobetu nahi izan zuten, eta isolamendu profesional bat egin.

ULMAk proiektuari eman dion balio bereizgarria funtsezkoa izan da:

- 1. Malgutasuna.** Plaka formatuak eta koloreak egokitu dira, eraikinrentzako nahi zen irudi berrira moldatzeko.
- 2. Soluzio integrala.** Proiektuaren eraikuntza faseak eta inplikaturako gremioak koordinatu dira.
- 3. Bizkortasuna hornikuntzan.** Formatu pertsonalizatuko materialaren hornikuntza errekorrezko denboran egin da.
- 4. Bizkortasuna lanak gauzatzean.** Azpimarratu behar da zaharberritze honek aintzat hartzeko moduko tamaina izan duela eta soilik 8 hilabetean gauzatu dela. 1750 m²/hileko batez bestekoa oso da aipagarria...

Gainera, proiektuaren helburuetako bat obra osoa kanpotik egitea zen, etxebizitzaren barrutik jarduketak saihesteko. Hala, etxebizitzok okupaturik egon dira eraikuntza prozesu osoan zehar. Eta horrek berebiziko garrantzia izan du auzokideen komunitatearentzat.

Zurgintzako itxitura kanpotik jarri beharra zegoen, horregatik, lankidetzan

Zaharberritze sistema honen abantailak:

- **Eraikinaren irudi berritua.** Irudi berritua ematen duen forma, kolore eta testura gama zabala dago aukeratzeko.
- **Ondarea handitzea.** Higiezina obraren kostuaren oso gainetik birbalioztatzen da.
- **Energia eta kontsumoa aurreztea.** Gastu gutxiago berokuntzan eta aire girotuan. Energia kontsumoa %30eraino murrizten da.
- **Zerbitzu integrala.** Materialaren fabrikaziotik hasi eta obrako instalazioraino. Gauzatzen dugun proiektu bakoitzaren erantzukizuna hartzen dugu eta 'erabiltzeko prest' zerbitzu integrala eskaintzen. Horrek aukera ematen digu epeak laburtu eta kostuak doitzeko.

funtsezkoa izan zen fatxada aireztatuaren eta aluminiozko arotz lanaren arteko entregak zehazteko orduan. Azken horrek beste baldintza batzuetara egokitu behar izan zuen, hala nola zaharberritzearen ondoriozkoetara, obra gauzatzeko epera eta eraikuntza fase desberdinetara.

ULMAk emandako balio erantsiaz gainera, fatxada aireztatuaren sistema bera eraginkorra dela jotzen da eraikina isolatzeko, zubi termikoak eta kondentsazio arazoak ezabatzen direlako eta eraikinaren portaera termiko-higrometrikoki bikaina lortzen delako.

Tximinia efektuari esker, aireak plakaren eta eraikinaren hormaren artean dagoen aire ganberan zirkulatzen du eta horrek berorik ez metatzea dakar, euriak edo kondentsazioak eragindako hezetasuna desagerraraziz.

FITXA TEKNIKOA

- **Sustatzailea:** Procornellà
- **Fatxada aireztatuaren azalera:** 13.929 m²
- **Eraikuntza enpresa:** UTE FAÇANES FONTSANTA
- **Arkitektoa:** J.A Marín Sánchez
- **Gauzatzeko denbora:** 8 hilabete

“Gure jarduerak berrantolatzekeo plan batean murgilduta gaude”

MIKEL IZURIETA. ULMA Architectural Solutions-eko gerentea.

« Nola ikusten duzue ULMA Architectural Solutions-etik azken urteotako koiuntura ekonomiko-finantzario zaila?

Dakigunez, hauxe da bosgarren urtea 2008an krisi sakon hau hasi zenetik. Gure merkatu nagusia Espainiakoa izan bada ere, azken urteotan ahaleginak egin ditugu gure produktuak European kokatzeko: Frantzia, Italia, Irlanda eta Polonian. Tamalez, Europako Ekonomia Erkidego osoa ari da krisi honen ondorioak pairatzen (bereziki herrialde batzuek), eta horrek zuzenean eragin digu eta gaur egun ere eragiten digu.

Krisian daramagun bost urteotan, oro har ia enpresa guztiei, eta gureari ere bai, eragiten diguten bi ezaugarri aipatuko nituzke: salmenten eta prezioen erorialdi mailaz mailako eta ikaragarri gogorra, eta, ondorioz, kostu eta gastu partida guztiak doitzeko ezinbesteko obligazioa. Esan beharra dago bereziki mingarria izaten ari dela lanpostuen doiketa.

Hala ere, esan behar da, gure enpresari dagokionez, aldi negatibo hau bi zatitan banatu behar dela. 2008, 2009 eta 2010. urteetan etekinak lortu ziren, fakturazioan beharakada izan bazen ere. 2011. urtea izan zen (azken 16 urteotan) galera txikiekin itxi zen lehenengo ekitaldia, eta 2012a okerragoa izaten ari da, zalantza barik.

« Zuen Negozioaren ikuspegitik, zeindira ULMA Architectural Solutions-ek kontrako testuinguru horri aurre egiteko dituen indarguneak?

Egoera latz honi aurre egiten laguntzen ari diren indarguneak hauek dira:

- Pertsona talde bikaina. Egoera ulertu eta egoera horretara egokitzeko

jarrerarekin, eta ideia berriak identifikatzeko eta duda barik etorriko diren erronka berriei aurre egiteko gaitasunarekin.

- Negozio Lerroek osaturiko modelo batekin lan egiteak eta urte askotako kontzientziarioak barne lekualdaketak egiteko malgutasun handia izatea ahalbidetzen dute, baliabideak optimizatze aldera.

- Eraikuntzarako soluzio eta sistema aurrefabrikatuak ezagutza eta arlo horretan pilatutako jakintza. Horri esker, premiei egoki erantzuten dieten eta lehiarako profil ona eskaintzen duten produktu proposamenak egiten ditugu.

- Balantze egitura. 15 urtean zehar emaitza positiboak eutsi izanak aukera eman du Balantze sendo bat “eraikitzekeo”. Horri esker, finantza arloan eutsi egiten diogu oraindik eta ordainketa obligazioak betetzen ditugu, Cash-Flow gutxi sortu arren.

- Kooperatiba gara. Zalantza barik, gure enpresa ereduak bereizgarri esanguratsua ematen digu lehiakideekiko. Ordainsarien doiketan ahalegin partekatua egitea eta eginkizunak aldatzeko prest egotea, biak ere zutabe giltzarriak dira ziklo negatiboari aurre egiteko.

« Enpresa ikuspegitik, etorkizunera begira zein helmuga ezarri dituzue eta horiek zein negozio estrategiatan oinarrituko dira?

Ezin bestela izan: lehen erronka fakturazioaren bolumena handitzea da. Hala, bigarren Helmuga beteko genuke, hau da, gure bazkideen enpleguari eustea.

Estrategia oinarritzen da nazioartean goraka datozen merkatuetan aukera komertzialak eten barik bilatzean eta, nola ez, azken urteotan landu ditugun



merkatuak sendotzen jarraitzean; hor dago Frantziako filiala, aintzat hartzeko moduko egitura batekin, 7 pertsonarekin.

Aipatutako estrategia aurrera ateratzeko, gure jarduerak berrantolatzekeo plan batean murgildu gara. Horren ondorioz, gure Enpresako 12 pertsonaren eginkizunak aldatuko ditugu; honenbestez, pertsona horiek Merkatu Eremuak gestionatzera birbideratuko dute beren lanbidea.

Era berean, oreka finantzarioari eusten ahalegindu behar dugu. Horretarako, inbertsioetan oso zorrotzak izaten jarraituko dugu (laster berreskuratzekoak edo premia handikoak gauzatuko ditugu soilik) eta Aktibo Zirkulatzaila ahalik eta errotazio gutxien izatera behartuko dugu.

« Zalantza barik, gure enpresa ereduak bereizgarri esanguratsua ematen digu lehiakideekiko. Ordainsarien doiketan ahalegin partekatua egitea eta eginkizunak aldatzeko prest egotea, biak ere zutabe giltzarriak dira ziklo negatiboari aurre egiteko.

Uste dut une ezin hobean
gaudela etorkizunean
egin nahi genukeenaren
oinarriak jartzeko.



“Mundua ez dago geldi eta gu ere ezin gara geldi egon”

IRENE ALBERDI. ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakaria

«**La urte eta erdi daramazu karguan, zein da zure balantze orokorra?**

Enpresa ikuspegitik, garai honetan oso gertaera garrantzitsuak jazo dira, hala nola gure 50. urteurrena eta ULMA C y E eta ULMA Manutencion kooperatiben barruan izandako zatiketa eta bat egite prozesuak. Horrek eraman gaitu antolaketa logikoago batera eta gure Negozioen errealitatek hurbilago egotera. Jakina, hori guztia bazkideen eta kooperatibetako organoen meritua da, izan ere, lidergorako gaitasun oso handiz burutzen ari dira proiektuak eta hori berretsi baino ez da egin azken batzarretan POGUan eta Barne Araudian onartutako aldaketa garrantzitsuekin. Ziur aski orain ez gara horretaz gehiegi jabetuko, baina erabaki horiek arrastoa utziko dute gure kooperatiben eta gure Taldearen etorkizunean. Bide horretan lan egiten jarraitu behar dugu, elkarrekin eta elkarri lagunduz bizi dugun garai zaila gainditu ahal izango dugulakoan.

Ikuspegi pertsonalago batetik,

balantzea oso positiboa da. Karguak aukera ematen dit gure Taldeko kooperatiben errealitatean sakontzeko, bazkide eta arduradunak ezagutu eta balioesteko eta, ahal den neurrian, taldearen esparrutik eta Departamentu Zentraletatik, laguntzen saiatzeko, gure kooperatiba batzuk bereziki bizi izaten ari diren une konplikatuetan.

«**Erakundeei dagokionez, POGUan adierazitako Taldearen Politika Orokorrei emandako bultzadak gure kooperatiba guztien artean kohesio handiagoa egotea ahalbidetzen du. Nola ikusten du Irene Alberdik aurrerakada hori?**

Aurrerakada mantso baina segurua da, nik uste. Hau da, azken urteotan Finantza, Gizarte eta Marka zein Komunikazio Politiketara aurreratzea lortu dugun guztia, ikusi denez, kohesiorako bide eta euskarri garrantzitsu askoa izan da gure Negozioetarako. Mailaz mailako garapenean aurrera egiten jarraitu behar

dugu, goitik ezarritakoa ez baizik eta partekatutako garapenean, kooperatibek uler dezaten beti ere etorkizunerako inportantea izango den zerbait eskaintzen gabiltzala. Ildo horretan ari dira lanean Batzorde eta Organoetan eta ziur nago, pausoz pauso, azkenean Taldea gure kooperatibentzako benetako euskarri bideratzaile gisa ikusiko dugula.

Taldea, beraz, denon artean eraiki behar dugu eta, zalantza barik, taldearen esparruan, gorabeherak gorabehera, gutxien landu diren alderdietan jarri behar dugu arreta. Laneko Segurtasun eta Osasun Politikak eta Pertsonen Prestakuntza eta Garapena gehiago landu behar ditugu. Denok elkarturik, baditugu alor horietan behar diren ezagutza eta gaitasuna. Politika Orokorrak garatzea ez ezik, Talde gisa partekatzen ditugun Balioak sendotzea ere garrantzitsua da (Lankidetzeta, Parte hartzea, Berrikuntza eta Lehiakortasuna). Ikaragarritzko lursaila dugu lantzeko eta gizarte konpromisoa, elkartasuna eta parte hartze eredu indartzeko, horixe baita benetako erronka

gure langileen kokapen geografikoaz, autonomiaz, erantzukizunaz eta abarrez arduratzeko.

Azken finean, gauza asko egin dugu baina argi ibili behar dugu, eta zertan gabiltzan etengabe aztertu. Mundua ez dago geldi, eta guk ere ez dugu geldi egon behar. Oraindik asko daukagu egiteko, denon parte hartze eta laguntzarekin.

« **Arlo ekonomikoa oinarri-oinarrizko eta lehentasunezko alderdia da edozein enpresa eredutan, are gehiago krisi garai honetan. Gai horri dagokionez, zer balantze egin liteke gaur egun ULMA Taldean?**

Taldea, osotasunean hartuta, oso dibertsifikaturik dago eta bizi izatea tokatzen ari zaizkigun errealitateak elkarren oso desberdinak dira bolumenean eta denboran. Globalki hitz eginda, esan genezake aurreko ekitaldian, 2011koan, halako joera aldaketa bat sumatzen hasi zela, eta aurten, ekitaldiaren amaieran aldaketa handirik ez badago, hori islatu egingo dela 2012ko ekitaldia ixteko izango ditugun emaitza global positiboetan. Birfinantzaketa prozesuaren ikuspegitik, ratioak positiboak izaten ari dira baita ere; hori dela eta, une lasai xamarrean gaude alderdi horri dagokionez. Zenbakiak, baina, zenbakiak dira eta irakurketa global positibo horren barruan badira egoera, ikuspegi eta errealitate oso desberdinak. Beraz, nire ikuspegitik, nahikoa da gure kooperatiba bat hazkundearen eta emaitzen hobekuntzaren bidean ez egotea, balantzea guztiz positiboa ez izateko. Tamalez, horixe da oraingo egoera. Gure kooperatiba batzuetan langabezia espedienteak aurkeztu behar izan dira, baina esan beharra dago Taldea laguntzen ari dela halako egoerak, ahal dela, ez daitezen horren traumatikoak izan, kontuan izanik, hasiera-hasieratik, ULMA Taldeko kooperatibetako bazkide guztiak Taldeko bazkideak direla eta, beraz, kooperatiba matrizeari nahiz Talde osoari dagokiela soluziorik onena ematea, halakorik gertatuz gero. Iragan hurbilean, kasu batzuetan oraindik behin betiko ebatzi barik dauden antzeko prozesuak izan ditugu, baina frogatuta geratu da ULMA Taldearen elkartasuna, ekonomikoa ez ezik, soziala ere badela. Eta hori lanik gabeko bazkideen hartzaile bihurtu diren kooperatibetako bazkide

eta arduradunei eskertu behar diegu, egin duten ahaleginagatik eta oraindik ere egin beharko dutenagatik, errealitate ekonomikoak gure kooperatiba guztietan enplegua sortzea ahalbidetu arte.

« **ULMA Taldearen etorkizunari arrakastarako bermez ekiteko, ahalegin handiak egin beharko dira eta ondo prestatutako pertsonak beharko dira. Izan ere, gure pertsonak eta beren ezagutza giltzarriak dira gure etorkizuna haien gainean eraikitzeko. Zer pauso ari gara ematen gure giza kapitalaren garapena indartzeko?**

Hala da, bai. Aurre egin beharreko errealitatea zein den, Negoziok aldatu egin beharko dute, baina pertsonak izango dira aldaketa horien lidergoa hartzeko prestatuta egon beharko dutenak, egokitze ikuspegia eta gaitasuna izango dutenak. Jakina, kooperatiba ez da zerbait egin behar duen bakarra; guztiaren oinarrian, gure pertsonak eredu kooperatiboarekiko eta Taldearekiko duten konpromisoa eta motibazioa ere egon behar dira. Gure betebeharrak bat da pertsonen ahalmena garatzeko behar diren bitartekoak sortzea, Taldeko Negoziotan karrera kurbak eta prestakuntza nahiz gaitasunak garatzeko aukerak zehaztuz. Gure Negoziok tamaina eta sektore askotarikoak izaki, irudi lezake hori oztupoa dela zenbait kasutan, baina nago plus bat dela, talentua garatzeko aprobetxatu beharreko aukera bat. Argi dago, alderdi horri dagokionez, ez gaudela ahalegin eta inbertsio handiak egiteko garairik onenean, baina uste dut une hau ezin hobea dela etorkizunean egin nahi genukeenaren oinarriak finkatzeko.

« **ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakaria zaren aldetik eta karguan emandako denboraren ikuspegitik, zeintzuk dira, zure ustez, Talde gisa aurre egin behar ditugun erronkak?**

Nire ustez, epe ertain-luzera daukagun erronkarik handiena hau da: gure ingurunean enplegu kualifikatua sortzeko aukerak emango dituen enpresa eredu kooperatibo bat denboran mantentzea eta garatzea. Lehen esan dugunez, kooperatibek aurre egin beharreko errealitatean, kanpoko langiledun

nazioarteko enpresak gero eta garrantzi handiagoa du. Etorkizun ez oso urrunean egin beharko dugun beste eztabaida bat hau da: denok eroso sentituko garen eta gure balio kooperatiboekin bat etorriko den antolaketa eta parte hartze eredu bat zehaztea.

« **Azkenik, baduzu mezuren bat Taldeko kolektiboari helarazteko, pasatzen ari garen garai zail honetan?**

Mezua itxaropentsua baino ezin da izan. Uste dut lehengai ona dugula gure artean, jende konprometitua eta lidergoa hartzeko gai dena, krisi honetatik indartuta aterako gaituena. Ezin dugu ahaztu bai ekonomikoki bai sozialki gaur egungo garaia bezain garai konplikatuak edo are konplikatuagoak bizi izan zituen jendearengandik jasotako ondarea. Haien egoerari buelta ematea lortu zuten. Haiengandik ikasi behar dugu etsipenean ez erortzen, etorkizunera begira jartzen eta horretarako lan egiten. Uste dut frogatuta geratu dela, azken 5 urteotan, gure bazkide eta langileek onura kolektiboa jartzen dutela beren helburu pertsonalen aurretik eta nago horixe izango dela hemendik indartuta aterako gaituen bidea. Hala ere, ez da nahikoa izango, eraginkortasunez gestionatu beharko ditugu, nazioarteko bokazio argiz, bidean agertuko zaizkigun negozio aukerak. Beharrezkoa izango da, halaber, elkartasunaren eta konpromisoaren bideetan lanean jarraitzea. Eskerrik asko denoi.

Ziur aski orain ez gara horretaz gehiegi jabetuko, baina orain hartzen ari diren erabaki horiek arrastoa utziko dute gure kooperatiben eta gure Taldearen etorkizunean.

2012. urtean aldizkariaren 10. urteurrena betetzen da, eta urteurren horrekin bat eginez, Marka, Komunikazio, EES eta IKT arloaren ardurapean, Begirak online bertsioa estreinatu du www.begira.ulma.com orrialdearen bidez. Helburu nagusia hau da: aldizkako informazioa ematea ULMA Taldeko Negozioen gaur egungo gaiari buruz, bertako sustapenei buruz eta ULMA Fundazioaren proiektuari buruz. Komunikazio tresna berri honek informazio eguneratua, iritziak eta kolaborazioak biltzen ditu, eta erabiltzaileei elkarreragiteko aukera ematen die twitter eta facebook kontuen bitartez. Gainera, orrialde nagusiak zuzeneko sarbidea ematen du ULMA Taldeak eskuragarri dituen sare sozial nagusietara: linkedin, vimeo, youtube eta abarretara. Era berean, aipatutako plataforman sortzen diren albisteak jaso nahi dituztenek Begira Online-ra harpidetu ahal izango dira beren RSSen bidez.

Begira aldizkariaren online bertsio berri honen xedea honako hau da: lehendik sendoturik dagoen paperezko bertsioarekin batera garatzea. Euskarri mota da bi bertsioak bereizten dituen, izan ere, online bertsioan gaurkotasuneko gaiak berehala argitaratzen baitira. Gainera, informazioaren tratamendua interneterako egokituta dago: testu labur irakurterazak, eduki grafiko handia (argazkiak, bideoak...) eta erabiltzaileekin elkarreragiteko aukera. Paperezko Begira aldizkariak, berriz, gure Negozioetako gaurkotasuneko gai garrantzitsuenak erakusten jarraituko du, baina edukiak gehiago garatuz.

Kolaborazioak.

Begira Online aldizkaria bazkide eta langileei komunikazio kanal berri bat eskaintzeko xedez sortu da. Informazio guztiak gaurkotasun zorrorekin argitaratzen dira, sortzen diren une berean. Proiektu hau aurrera ateratzearen arduradun den Marka, Komunikazio, EES eta IKT arloak Negozioetako Komunikazio eta Marketin Departamentuekin dihardu lankidetzan, eta horien erantzukizuna izango da site berri honetan beren enpresa errealitateetako gaurkotasuneko gaiak

idatzi eta argitaratzea. Argitaratutako albiste guztiak modu ordenatuan biltegitzen dira plataforman. Site-aren home edo orrialde nagusian, beti egongo dira ikusgai sortutako azken 7 albisteak. Era berean, albiste guztiak taldeka sailkatuz doaz "Gaurkotasuna" fitxaren barruan, eta horrek aukera ematen du, esate baterako, Negozio zehatz batek argitaratutako albiste guztiak arin eta erraz eskuratzeko. Abantaila horrek aukera ematen die Negozioei RSS bidez beren albisteak sistematik kargatzeko beren site edo infranetetan; hala, egin beharreko lana arindu egiten da eta albiste bat hainbat hedabidetan argitaratzen da tresna bakar batetik abiatuta.

Plataforma eta edukiak.

Edukiak gestionatzeko erabiltzen den sistema Plone da, hau da, edukiak arin eta erraz eguneratzea ahalbidetzen duen teknologia bat. Sistema hori ezartzeko, Codesyntax enpresaren laguntza izan dugu. Online aldizkariaren edukiak, forma eta estiloa paperezko aldizkarietako datoz, izan ere, site-aren atalak Begira izan ohi ditugun berberak dira: gaurkotasuna, elkarrizketak, erreportajeak, editorialak etab. Gainera, bertsio honek Hemeroteka edo Paperezko Edizioa izeneko atal berria dakar. Bertan, Begira aldizkariaren paperezko edizio guztiak aurkitu ahal izango ditugu. Hasierako orrialdean, halaber, erabiltzaileei aukera ematen zaie atal berrien, aztergai berrien eta abarren gainean beren hobekuntza proposamenak eta iradokizunak bidaltzeko. Gaurkotasuneko atari honetako eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz editatzen dira. 2013. urtetik aurrera, eta mailaz maila, gure filialek dituzten informazio korporatiboko beharrei erantzun dieten bertsio berriak txertatuz joango gara.

Plataformaren abantailak

- Gaurkotasuna eta berehalakotasuna.
- Zabalkunderako gaitasun handiagoa.
- Norabide askoko komunikazioa.
- Web bidezko sarbidea edozein lekutatik interneten bitartez.
- Mantentze kostu txikia.
- RSS bidezko bazkidetza.
- Interakzioa sare sozialekin

Online atalak

- Albisteak eta gaurkotasuna
- Erreportajeak
- Elkarrizketak
- Editorialak
- Hemeroteka



Jesús M^a del Río

ULMA Packagingeko atzerriratua Alemanian



2006. urtean, ULMA Packaging indartsu ari zen zabaltzen eta orduko filialak sendotzen zebiltzan. Garai hartan, ULMA Packagingek bazuen filial komertzial bat Alemanian, baina zaila zen alemaniar merkatuan sartzea, alde batetik, Alemaniako merkatuaren eskakizunak oso zorrotzak zirelako, eta, bestetik, ULMA Packagingen lehiakiderik gogorrena, hala merkatu kuotan nola teknologian, Alemanian bertan zegoelako.

Urte hartan, Jesus Maria del Rio Illertissen-era lekualdatu zen bere familiarekin. Herria ULM ondoan dago, Alemania hegoaldean, eta hantxe eman zion hasiera del Riok bere abentura profesional ziragarriari.

>> Jesús M^a del Río bere familiarekin
Alemanian



>> Luis errege zoroaren gazteluaren irudiak eta Municheko garagardoaren jaiak.

"2006an esperientzia handiko talde txiki bat osatu genuen Alemanian eta I+G-ko zentro bat irekitzeari ekin genion, denborarekin jardura komertzialean integratzeko eta lehiakideen maila teknologikoetatik hurbilago egon ahal izateko.

Nik 6 urte neraman ULMAn Arloko Manager gisa Mendebaldeko Europako hainbat herrialdetan, tartean Alemania. Gure lanpostuetan kontaktua beti egoten den arren, gauzak ikuspegi desberdin batetik ikusten dira, oso ikuspuntu operatibotik. Dena den, badira beste faktore batzuk, baita kulturalak ere, ulertzen ez direnak. Bestalde, Packaging negozioan, zerbitzua oso faktore inportantea da; hori dela eta, kontua ez da salmentarekin amaitzen. Makina bakoitza, bezero bakoitza, produktu berarekin ere, mundu bereizi bat da eta, horregatik, bezeroaren ondo-ondoan egon beharra dago. Nik betidanik uste izan dut gauzak errazago eta modu eraginkorragoan gestionatzen direla benetan ondo ezagutzen dituzunean eta bertatik bertara bizi izaten dituzunean, herrialdea gorabehera, hori guztia Matrizera eraman ahal izateko. Egiten genituen hausnarketa estrategikoetan premia biok bat egin zuten eta ia-ia egun batetik bestera niri atzerriratzea zekarkidan proiektu honen garapenean murgilduta geunden.

Nire emazte Ane konbentzitzea ez zitzaidan oso nekeza egin, nahiz eta hark lanpostua utzi behar izan erabat berria zen zerbitzetan murgiltzeko. Ane Alemanian ibilia zen ikasten, beraz, ez

zitzeaion arraroegi egin. Atzo balitz bezala gogoratzen dut e-mailez bota niola, eta berak baietz erantzun zuela, sinesgogor bezain hunkiturik. Jakina, gerora ideia pixka bat ontzen ibili ginen... Azkenean, 2007ko abuztuaren 8an, atzera begiratu barik, maletak egin eta bizitza berri bati ekin genion. Gure seme-alabak, Gaizka eta Jone, artean 4 eta 5 urte bete gabe, adinik egokienean zeuden. Urtebete lehenago edo geroago izan balitz, kontua planteatu ere ez genuen egingo. Alemanian 4 hilabete pasatxo generamala, ez zekiten gaztelaniaz, euskaraz edo alemanez hitz egin behar zuten. Hiruretan pare-pareko maila zeukaten. Hori bai, sekula ere ez zituzten hizkuntzak nahasten. Haurren gaitasunak beti txundituko gaitu.

Alemania hegoaldeko Bavaria estatuan, ULM ondoan dagoen Illertissen herrian bizi gara. 15.000 biztanle inguru bizi da bertan, gezurra badirudi ere. Euskadiko herri bateko bizimodua, baita herririk txikienekoa ere, ezin da konparatu, ezta urrundik ere, hemengoarekin. Baina

Esperientzia oso positiboa da eta denboran atzera egingo bagenu, gaur egun ez dut zalantzarik gauza bera egingo nukeela, nahiz eta nik neuk ez nukeen behin baino gehiagotan egingo.



Alemanian ondo bizi gara, hezkuntzak eta sanititateak oso ondo funtzionatzen dute eta segurtasun handia dago. Azken finean, ondo funtzionatzen duen herrialde bat da. Beste leku batzuetan ez bezala, hemen ez dago urrezko karioletan bizi beharrik, aldeak ez dira horren handiak eta ez dago hondartza paradisuazkorik, basamorturik edo beste toki batzuetan egon daitekeen berezitasunik. Bertako bizimodua egiten eta alemaniar kultura ahalik eta gehien ezagutzen saiatzen gara. Gaur egun, 5 urte igarota, oso ondo integratuta gaude, hasieran zaila izan bazen ere. Batzuetan, norberak pentsa dezakeena baino zailagoa, izan ere, badira norberaren kontroletik kanpo dauden faktore emozionalak, baita denborarekin bakarrik gainditzen diren zailtasun eta oztupoak ere.

Ikuspegi profesionaletik, beti izan dut Oñatiko laguntza indartsua, eta horrek lagundu egiten du. Ezin da ahaztu talde txikiak gestionatzen baditugu ere, kasuak eta arazoak enpresa handi batean bezalatsu agertzen direla eta arazook gestionatzeko baliabideak murriztzak direla. Horixe da, beharbada, bizitzea tokatzen zaigun parterik zailena. Distantzian eta beste kultura batean sortzen diren arazoak are zailagoak egiten dira. Hala ere, esperientzia oso positiboa da eta denboran atzera egingo bagenu, gaur egun ez dut zalantzarik gauza bera egingo nukeela, nahiz eta nik neuk ez nukeen behin baino gehiagotan egingo. Ikuspegi pertsonaletik, nire ustean esperientzia errepikaezina da eta horrekin geratzen naiz".

ULMA Forja, S. Coop.

50 urte elkarrekin 1962-2012



Historia 1962. urtetik dator. Urte hartan GAITU sortu zen, hasierako sustatzaileen abizenen lehenengo letrarekin osatutako izena daramana (Guridi, Ayastuy, Irizar, Telleria eta Urcelay). 50 urteko bizitza honetan enpresak aldaketa ugari jasan ditu, bai izenari dagokionez, (ENARA bihurtu zen 1967an, eta azkenean ULMA Forja hartu zuen forma juridikotzat, 1995ean), bai lan egiteko moduari dagokionez. Honela diote zenbait bazkidek...



MIGUEL ÁNGEL LASAGABASTER

Miguel Angel ULMA Piping-eko beteranoetakoa da. Garai bateko ENARA n hasi zen lanean, 1971. urtean. Hauek dira bere bizipenak:

“Garai hartan zegoen giroa lan asko egitekoa zen, laguntasun handikoa. Lan kargari dagokionez, gorabehera askoko urteak izan ziren. Egin beharreko lan orduak egiten ziren, eta zenbaitetan batere kobratu gabe.

ULMA Taldeko parte izatera iritsi arte, hainbat krisi igaro genituen. 1992. urtean neu ere birkokatuta egon nintzen. Une bat egon zen non kartilak zeroan geratu ziren, are negatiboan ere, eta etxetik diru ekarri behar izan genuen... Sakrifizio asko egin behar izan genuen kooperatiba aurrera ateratzeko. Gaur egun pentsaezina litzateke sakrifizio maila horretara iristea.

Jendea gaur egun baino elkartuago zegoen. Gaur egun individualismo handiagoa dago. Gizartea aldatu egin da, eta gu berarekin aldatu gara. Partaidetza espiritua galdu da, kooperatiba batean partaide izatearen harrotasuna.

Lan egiteko modua errotik aldatu da. Inbertsio asko egin da merkatuaren beharrei aurre egiteko. Faltan botatzen dudana da “diziplina” pixka bat lan egiteko orduan. Goiko arduradunei buruzko errespetua pixka bat galdu da.

Nik 50 urteoi buruz egin dezakedan balorazioa positiboa da. Hainbat urte on izan ditugu eta, berez, aurreikuspenak ere onak dira. Urte txarrek geure burua indartzeko balio izan digute, eta espero dut berriro ere prest egongo garela etorkizunean etor daitezkeen garai txarretarako.

Ilusioa eta lan egiteko gogoia ezinbestekoak dira honek funtzionatzen jarraituko badu”.

Lan egiteko modua errotik aldatu da..





ANDER MOYUA

Denboran 20 urte aurrera egin eta beste belaunaldi baten bizipenak ezagutuko ditugu. Ander 1991. urtean hasi zen ULMA Piping-en lan egiten eta, ia ohartu gabe, 20 urte daramatza gure artean:

“Ni forjan hasi nintzenez ia e zegoen gazte jenderik, eta aldi baterako langileak oso gutxi ginen. Aldi baterako langilearen eta bazkidearen arteko aldea oso markatuta zegoen; uste dut gaur egun diferentzia gutxiago dagoela.

Lanaren berezko baldintzak eta forja batek esan nahi duenaren ingurunea, hau da, udako beroa, neguko hotza, zarata, esfortzu fisikoa... oso gogorak dira. Baina 20 urteotan niretzat gogorrena istripuk zian dira, bai norberak sufritutakoak bai lankideenak, batez ere horietako laneko istripuan galdu izana.

Nire iritzia da kooperatibaren sentsazioa galduz joaten dela kooperatiba handitzen den heinean; gaur egun sentimendu kooperatibistak existitzen jarraitzen du, baina zoritxarrez hondar kutsua-edo hartu du.

Balorazioa positiboa da, bahintzat ni ezagutu ditudan 20 urteotako, askoz baldintza kaskarragoetan hasi bainintzen lanean, ingurune zikin eta zaratsua batean, 100 langile inguru zituen kooperatiba batean. Gaur egun sektorean askoz sendotuago gauden enpresa gara, puntako instalazio batzuekin eta 300 langile inguru dituen plantillarekin.

Etorkizuna ongi ikusten dut. Epe laburrera uste dut aurreikuspenak oso onak direla, badirudi merkaturak egon badagoela. Arazoa batzuetan izaten da olatuari nola heldu... gainean ibiltzea edo barruan estropezuka ibiltzea... baina badirudi olatua egon badagoela”.

Sentimendu kooperatibistak existitzen jarraitzen du, baina zoritxarrez hondar kutsua-edo hartu du.



PILI DE BLAS

Pili enpresa honen historiako lehenengo emakume forjatzailea da. Gizonek menperatutako forja bezain ingurune gogor batean, beterranoek harrera ona egin zioten. Honela diosku:

“ULMA Forjan 2004. urtean hasi nintzen lanean. Prentsetan sartu zen lehenengo emakumea izan nintzen. Nik beldur handia neukan, batez ere beterranoek egingo zidaten harrera zela eta. Forjako sekzioa beti gizonezkoen eremua izan da, eta emakume baten presentzia, “gizonen lan hori” egiten, arraro samar geratzen zen. Sorpresa atsegina hartu nuen, oso harrera ona egin zidatelako, guztiek. Ez nuen espero. Horri dagokionez, pozarren nago.

Nik kooperatibismoa enpresa honetan ezagutu dut. Sozietate anonimo batean lan eginda nengoen, eta funtzionatzeko moduan egundoko aldea dago. Kooperatiban elkartasuna dago, ahalegin komunak, enpresaren alde egiten direnak.

Gizonak ere sekzio berean lan egiten du. 22 urte daramagu ezkondu, eta elkarrekin lan egiten dugu. Batzuetan 24 ordu ematen ditugu elkarrekin. Ongi moldatzen gara, baina okerrera izaten da batzuetan lana etxera eramaten dugula.

Nik lan asko ikusten dut aurrean, etorkizuna ongi ikusten dut. Tona asko atera beharra dugu. Uste dut komertzialak lan asko ekartzen ari direla, eta 2013. urtea ona izango dela espero da.

Egoerak horrela jarraitzea nahi dut, proiektuari pixkana aurrera eginez, eta egiten dakiguna egiten jarraituz.

ULMA Forjan emandako urteei buruz egin dezakedan balorazioa positiboa da. Desio bat eskatu behar banu eskatuko nuke negozioa konstanteagoa izatea, hainbat gorabehera, on zein txar, izan gabe. “

Sorpresa atsegina hartu nuen, oso harrera ona egin zidatelako, guztiek. Ez nuen espero. Horri dagokionez, pozarren nago.



JAVI CONDE

Javi ULMA Piping-eko azken belaunaldietakoa da. Hau da bere esperientzia:

“Ni 2006ko ekainean hasi nintzen ULMA Forjan.

Negoziari dagokionez, trantsizio garaia zen hura. Estrategi aldaketaren hasiera izan zen, EPC proiektuetarako lan egitea ekarri zuena. Eta horrek ekipamenduak ekarraz zituen, lan egiteko modu berri bat eta antolamenduko aldaketa sakonak.

Balio eta ezaugarri kooperatiboak buruz ez nekien gauza handirik. Niretzat erakundea “bizitzeko” modua oso aldaketa handia izan zen, organo sozialetan parte hartzea eta bazkideen erantzukizuna erabakiak hartzeko orduan.

Halabeharrez, balio kooperatiboak desberdin ikusten dira garai oparoetan edo krisi garaietan. Orain are beharrezkoagoa da balio horiek berrestea, ahalegin askorekin batera, enpleguak, enpresa eta ingurunea mantentzea ahalbidetzen dutelako.

Beharbada nik bizi izan dudana esperientziarik bereziarena gure enpresaren sorreraren 50. urteurrenaren ospakizuna izan da. Data seinatua izan da, ekitaldi ahaztezina, antzinako bazkideekin, kide berriekin eta are kooperatibaren zenbait fundatzaileekin oso une bereziak konpartitzeko balio izan zuena, eta, izan badaiteke, are kontzienteagoak izan ginen gaur egungo egoera ezinezkoa izango zela hainbat belaunaldiz beste jende askok jarritako grina eta esfortzuagatik izan ez balitz.

Enpresak bizirauteko giltzarrietako bat aldaketara etengabe egokitzea da. Dinamismo hori ez dago kontrajarrita balio kooperatiboak mantentzearekin, horiek, berrikusi behar izan badira ere, urte hauetan guztietan balio dutela erakutsi baitute”.

Giltzarrietako bat aldaketara etengabe egokitzea da



VII. Argazki lehiaketa Munduko Herrialdeak eta Kulturak



ULMA Taldeko bazkide eta langileentzako argazki lehiaketaren VII. edizio honetan, "Munduko Herrialdeak eta Kulturak" erakusteko zuen argazkirik onenak bidaltzera animatzen zaituztegu.

Hamabi argazkirik onenek UMA 2013 egutegi Korporatiboa ilustratuko dute. Gainera, parte hartzaile guztien artean IPHONE bat zozketatuko da.

Bidalketa e-mailez egin daitezke, datoren 2012ko abenduaren 14ra arte, helbide honetara: begira@ulma.es edo <http://Portalde.ulma.com> helbidetik.

Edizio honetan langile bakoitzak gehienez 6 argazki baino ezingo du bidali, eta egutegi korporatiborako horietako bat baino ezingo da aukeratu.



Parte hartu eta
irabazi IPHONE bat

ERRETIROAK: 2012ko irailaren 1etik abenduaren 31ra

Antonio
Barrena Iturbe



Enrique
Irusta Basauri




Gregorio
Bolívar Rodríguez



José
Berrús Milans



Francisco Javier
Zabaleta Vicuña



Eskerrik asko denoi eta disfrutatu!
Zorionak

begira 

Revista Corporativa



 **ULMA**

Begira aldizkaria, orain **Online formatuan**



Eskaneatu kode hau zure Smartphonearen QRarekin eta sartu zurean Begira OnLinean.

Orain ULMAko azken berriak zure eskura

www.begira.ulma.com



 **ULMA**